

3. MAILA

Azterketa idatzia

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak lau zati izango ditu

- Entzumena
- Idazmena
- Gramatika eta lexikoa
- Irakurmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste hiru zatiak, idazmena, gramatika eta lexikoa, eta irakurmena ondoren.

Entzumena amaitu ondoren, **2 ordu eta 30 minutu** izango dituzu idazmenaren, gramatika eta lexikoaren, eta irakurmenaren ariketak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposatutako denbora
Azterketa idatzia	Idazmena	15	30 puntu	1 h 15 min inguru
	Gramatika eta lexikoa	5	10 puntu	25 min inguru
	Irakurmena	5	10 puntu	45 min inguru
	Guztira	28	50 puntu	
	Entzumena	10	20 puntu	25 min inguru

ENTZUMENA

1. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratitik hartutako albistearen entzuzko duzue. Albistearen **bi aldiz** entzuzko duzue. Entzuzko duzue bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Orain, **2 minutu** dituzue **lehenengo testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

1. Antonio Zabalaren hiletak non izango dira?

- Iruñean hil bazen ere, hiletak Xabierren izango dira.
- Iruñean hil zen eta bertan izango dira hiletak.
- Heriotzaren hurrengo egunean egingo dizkiote hiletak Iruñean.

2. Nor izan zen eta zer egin zuen Antonio Zabalak?

- Herri-literaturaren sortzailea izan zen.
- Herri-literaturaren historia idatzi zuen.
- Bertsok berreskuratzen lan eskerga egin zuen.

3. Gertaera hauen artean, zein dagokio Antonio Zabalari?

- "Honoris causa" doktore izendatu zuen Nafarroako Unibertsitateak.
- Unibertsitateko ikasketak egin zituen.
- Frantziskotarra izan zen.

4. Nola sortu zuen Antonio Zabalak *Auspoa* bilduma?

- Baserrietatik eta hainbat jakintsurengandik bertsoak bilduta.
- Inprentetan sakabanatuta zeuden hainbat liburu bilduma bakarrean argitaratuta.
- Euskal Herri osoko hainbat liburutegitan lana etengabe eginda.

5. Zer gertatzen zitzaion bertsolari askori?

- Baserriz baserri eta inprentaz inprenta ibiltzen zirela bertsoak biltzen.
- Auspoa* bildumari esker bertsoak idazten ikasi zutela.
- Batzuetan inprentan bertan abesten zituztela bertsoak, ez baitzekiten idazten.

6. Zabalaren zein alderdi azpimarratzen dute Andres Urrutia eta Kazabon jaunek?

- Euskal Herri osoko herri-literatura biltzeko jende asko ezagutu izana.
- Herri-literatura idazteko trebetasuna eta erraztasuna.
- Pertsona bakar bat izanik askoren lana egin zuela.

7. Zein altxor aipatzen du Antonio Zabalak berak jasotako artean?

- Lasarteren eskuizkribua, Zabalak berak enkuadernatuta.
- Xalbadorren bertsoak, hark eskuz idatziak.
- Odolaren Mintzoa* hirugarren bertso inprimatua.

8. Imanol Lazkano bertsolariak zer egin zuen?

- Antonio Zabalari eman zion bere artxiboa, hasieran kezkatu.
- Bere artxiboa erreparatzeko eman zion, txukunduko zuelakoan.
- Itsu-itsuan eman zion bere artxiboa, arrakasta lortuko zuelakoan.

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

1-	2-	3-	4-	5-	6-	7-	8-
----	----	----	----	----	----	----	----

ENTZUMENA

2. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratitik hartutako albistea entzungo duzu. Albistea **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Orain, **minutu 1** duzu **bigarren testuari** buruzko esaldiak irakurtzeko.

	Egia	Gezurra
Adibidea: <i>0. Albistearen arabera, Euriborra merkatzen ari da.</i>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
1. Euriborraren berrikusketa hilaren lehenengo astean jakingo da hemendik aurrera.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2. Hipoteka ordaintzen ari denak ez du gauza handirik sumatuko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3. Hainbat herritarrek salaketa jarri zioten Espainiako Bankuari.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Euriborrarekin batera, hipoteka ordaintzeko epea ere aurreratu egingo da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Hipoteka ordaintzen ari direnek lehenago izango dute beherapenaren berri.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Euriborraren joera aldatzen ez den bitartean, hipoteka duten guztientzat neurria ona izango da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7. Denboraldi baterako Euriborrak beheranzko joerari eustea espero da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

ENTZUMENA

3. TESTUA

Ondoren, Mikel Urdangarinen *Bar Puerto* diskoko poema baten irakurketa entzungo duzu. Irakurketa **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Orain, **minutu eta erdi** duzu **hirugarren testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

1) Zertara joan da kontalaria erietxera?

- a) Anaia gaztea nola dagoen ikustera.
- b) Gaixo duen arrebari bisita egitera.
- c) Lagun bat bisitatzera.

2) Zergatik dago negarrez aurreko oheko gaixoa?

- a) Orratzak min eman diolako.
- b) Heroina hartu izanaz damu delako.
- c) Bera ikustera inor joan ez delako.

3) Nor joaten zaio bisitan kontakizuneko protagonistari?

- a) Kontalaria, ama eta aita.
- b) Aspaldi batean etxeko guztiak, baina orain ama bakarrik.
- c) Tarteka, aita- semeak.

4) Nola dago kontakizuneko gaixoa?

- a) Triste eta negar batean.
- b) Egunean baino egunean okerrago.
- c) Egunak eta egunak daramatza esnatu gabe.

5) Zer eskatzen zien gaixoak etxekoei?

- a) Hotza kentzeko zerbait ekartzeko.
- b) Maitasun apur bat baino ez.
- c) Adorea eta itxaropena emateko.

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

1-	2-	3-	4-	5-
----	----	----	----	----

IDAZMENA

Egitekoa:

Jarraian, artikulua bat idazteko proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu (kontuan hartu zer eskatzen den).

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
eskatutakoari erantzun diozun
testu egokia osatu duzun
euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**

1. gaia

Publizitatea: produktu ona edukitzea bezain garrantzitsua da ondo saltzen jakitea

“Produktua erosteko aholkua ematetik, hori erosten duenaren balioa nabarmentzera pasatu da publizitatea. Gaur egun ez da nahikoa produktu ona eta kalitate bikainekoa ekoiztea; garrantzi handiagoa hartu du iragarkiak batzuetan.”

Gai hori abiapuntu hartuta, **gazte-aldizkari** baterako **artikulua** idatzi behar duzu.

Zure iritzia ematearekin batera, publizitateak nola saltzen duen eta guk zergatik erosten dugun azaldu.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Irakurri duzun albisteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:

- Publizitatearen historia: txartelak, irratia, telebista, teknologia berriak...
- Iragartzen ez den produktua ez da saltzen.
- Publizitateak edozein bide erabiltzen du jendea erostera bultzatzeko.
- Publizitatea eta iruzurra. Gezurrik esaten da iragarkietan?
- Itxura fisikoa eta publizitatea. Iragarki sexistak.



2. gaia

Noiz alde egin behar dute seme-alabek etxetik?

“Espainiako estatuan lanean ari diren 25 eta 30 urte bitarteko gazteen %60 inguruk ez du oraindik gurasoen etxetik hegaz egin.”

Albistearen gaia kontuan hartuta, **gazte aldizkari** baterako **artikulua** idatzi behar duzu.

Zure iritzia ematearekin batera, azaldu zein garaitan alde egin beharko luketen seme-alabek gurasoen etxetik eta zehaztu horren arrazoiak.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

Irakurri duzun albisteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:

- Zergatik ez dute lehenago alde egiten?
- Zer egin beharko litzateke etxetik lehenago alde egiteko?
- Gurasoak dira seme-alabak etxetik joaterik nahi ez dutenak.
- Belaunaldien arteko aldea gero eta txikiagoa da.
- Atzerrian beste ohitura batzuk dituzte.



Asteko gaia

5

10

15

20

25 _____

30 _____

35 _____

40 _____

45 _____

50 _____

55 _____

60 _____

65 _____

70 _____

GRAMATIKA ETA LEXIKOA

1. ESALDIAK BERRIDATZI

Egitekoa:

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste era batera adierazi behar dituzu. Horretarako, azpiko esaldia osatu behar duzu, goiko esaldiko hitzak ahalik eta gutxien aldatuta. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina betiere esaldi bakar bat osatuz, eta ortografia zuzenarekin.

Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik eten-puntuak baldin baditu, zerbait idatzi behar da horri lotuta. Adibidez:

...**takoan** → etorri **takoan**

Eten-punturik ez badu, aparteko hitza da.

Adibidez:

0. Hasieran errua berari egotzi nion. Horrek lotsa eman zidan gero.

Hasieran bera erruduntzat jo izanak **lotsatu** egin ninduen gero.

1. Baseri aurrera ailegatu zenean atearen goiko zatia irekirik zegoen. Horrek asko kezkatu zuen.

.....
.....**zitzaien.**

2. Egiatzko arrazoa edozein zelarik ere, Aneren erabakiak gauzatu egin ziren.

.....**gorabehera,**.....
.....

3. Nik beti pentsatu izan dut musika asmatu zuenak gizakia eromenetik libratzeko helburuz asmatu zuela.

.....**aren**
helburua.....

4. Zein txarto ibili nintzen lagunek antolatu zuten jaialdi hartan!

Bai.....
.....**tako**.....**!**

5. Zure lagun horrek gogor ikasi beharko du azterketa guztiak gainditu ahal izateko.
 **ekin**
 **gaindituko**.....
6. Gaurko gizartean arrakasta izatea garrantzitsua da, baita dirua izatea ere.
 **adinako**

7. Igeltseroek etxea konpontzeko lanak behin betiko bukatuz gero, bake ederra hartuko luke!
A zer.....
 **ba**.....
8. Alde batekoek eta bestekoek aldaketak barneratzeke prest egon behar dute, inoiz benetako batasunik lortuko bada.
 **...tzekotan**.....

9. Igogailuetan mintzagairik egokiena eguraldia da.

 **mintzagairik.**
10. Gure egitekoa ez da geure artean lehiatzea, beharrei erantzutea baizik.

 ... **barik,**

2. BALIOKIDEA AUKERATU

Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, markatuta dauden hitz horien **baliokidea** aukeratu behar duzu. Idatzi bakoitzari dagokion letra beheko laukietan.

Sonbreiru baten istorioa

Bezpera **ilunabarrean (1)**, sonbreiru hori armairutik hartu eta buruan ipini duen gizonak bere etxeko leihotik **so egin (2)** du. Sartaldeko oskorriak iragan **errainuen (3)** hondarrak erakusten ditu, hiriko teilatuen gainean, eta **ortziaren (4)** gorritasun suabea **zurbiltzen (5)** eta ubeltzen ari da **emeki-emeki (6)**. Bizitza ez dela espiral bat, zirkulu bat delako gogoetetan ari da Wener Hebbel, sonbreirua eta bufanda ipini eta aterantz abiatzen denean.

Zurezko atea **hertsi (7)** eta eskaileretan behera jaisten da, horma eta **mailadi (8)** ilunen artean, astiro, adinaren zamek hala beharturik. Gizaseme agurea da, Wener Hebbel, eta bere larru zimurrak eta gabardina **lohiak (9)** maleta zahar baten antza ematen diote. Bereziki geldiunetan dirudi maleta zahar bat, oraintxe adibidez, **atarian (10)** gelditu denean erlojua begiratzeko.

Joseba Sarrionandia, Narrazioak, Sonbreiru baten istorioa (moldatua)

	A	B	C	D
1	ilunpetan	egunsentian	arratsean	goizaldean
2	dei egin	begiratu	ernatu	igarri
3	printzen	adarren	uhinen	enborren
4	ortzadarraren	oinaztarriaren	artizarraren	zeruaren
5	itzaltzen	zimeltzen	larritzen	azkartzen
6	epeka	bortizki	geldiro	arinki
7	ireki	idoro	etsi	itxi
8	eskailera	horma	korridore	karraju
9	zarpailak	lodiak	ilunak	zikinak
10	atetilan	atarrean	atakan	aterpean

1-	2-	3-	4-	5-	6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

IRAKURMENA

Egitekoa

Irakurri testuak eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi **letra** dagokion laukian.

1. testua

Entziklopedia

Gogoan dut mutikotan entziklopedia eskatu nuela Gabonetako opari legez. Amak harriduraz begiratu ninduen lehenik eta garestiegia zela iritzi zion. «Aurtengo eta datorren urteko olentzeroa izango da», bota nion nik, hura errukitu nahian. Larousse entziklopedia ekarri zidaten nik eskatu bezala, larruzko azalak zituen eta bizkarrean urrezko letrak. Liburuki lodiolodiak ziren Larousserenak eta haietako bat eskuetan hartzea ere kosta egiten zitzaidan.

Oporrak bukatu zirenean, nola ez, ez nien txintik esan eskolako lagunei Olentzeroren opariari buruz. Ez nuen barregarri geratu nahi izan, izan ere, gehienei bizikleta berria ekarri baitzien Olentzerok. Nire opariari buruz galdetzen zidatenean, «gauza handirik ez», esaten nien.

Baina benetan gauza handia izan zen niretzat entziklopedia hura. Gomutan dut A letraren liburukia hartu eta irakurtzen hasi nintzela entziklopedia, hasieratik bukaerara, liburu bat irakurtzen den gisa. Hura ikusita, Gabonetan etxean osaba batek esan zidan, «ez zoratu gero, egun osoa zure zorioneko entziklopediarekin». Ez dakit zer izango zuen buruan osaba arrantzaleak hori esan zidanean, Kixoteaz oroituko zen, ala «gehiegi estudiatzearren» erotu zen herriko gizon hartaz. Kezkatu egiten zen lagunekin ez nembilelako kalean.

Igaro zen urtea eta heldu ziren berriz Gabonak. Amak ez zidan gauza handirik oparitu, aurreko urtean promesa egin nion-eta entziklopedia bi urteko olentzeroa izango zela. Amaren oparitxoak hartu eta konformatu nintzen. Orduantxe, ezustean, osabak niretzako opari bat zuela esan zidan. Bizikleta bat zen.

Kirmen Uribe, *Berría*, 2009/01/17

1. testua

1. Zer bururatu zitzaion mutikoari Gabonetarako?

- Amari entziklopedia erdia eskatzea.
- Amak oparia jasotzeko jarri zion baldintza onartzea.
- Amari entziklopedia bi urtetako opari bezala eskatzea.

2. Zer ondorioztatu zuen osabak mutikoa entziklopediarekin ikustean?

- Iloba Kixoteren bide beretik abiatzeko zorian zegoela.
- On egingo ziola zorioneko entziklopediak.
- Hobe zuela eskolako lagunei entziklopediari buruz txintik ez esatea.

3. Zein da egunkariko zutabearen mezua?

- Entziklopedia irakurtzea ona dela haurrentzat ere, baina ez liburuki bat bezala, goitik behera.
- Gabonetan opariak eskatzerakoan zuhur jokatu behar dela, itxura ona emanaz gero, opari hobeak lortzen direlako.
- Irakurzaletasunak kezka ere sor lezakeela, haurren kasuan desberdintasun seinaleztat har daitekeelako.

1-

2-

3-

IRAKURMENA

2. testua

1609-1859

Bi izen hasi berri dugun urterako: Galileo Galilei eta Charles Darwin. Lehenengoak, Galileok, teleskopiotik begiratu zion aurreneko aldiz zeruari duela 400 urte, eta Lurretik haratagoko betiereko unibertsoa goitik behera aldatu da harrezkero. Duela 150 urte, berriz, *Espezieen jatorriaz* lana argitaratu zuen Darwinek, eta ondorio berberak eragin ditu Lurreko bizidunen historian. Hain zuzen, horixe da aurten ospatuko diren bi urteurren horietatik hemen nabarmendu nahi dudana ezaugarria: bataren eta bestearen lanek munduaren ikuspegia berritu zutela, eta, mendeen bueltan, jakintsuago eta askeago egin gaituztela.

Galileok astronomian egin zuen lan, planetak eta izarrak behatu zituen teleskopioaren laguntzaz, eta inoiz ikusi gabeko -eta ezinezkoak ei ziren- fenomenoen berri eman zuen, aurrekoan aipatu nituen Tycho Brahek eta haren oinordeko Keplerrek bezalaxe -izan ere, orduan ez nuen esan, baina azken biak garaikideak izan ziren; planeten higidurari buruzko Keplerren legeak Galileoren behaketa teleskopikoen urte berberekoak dira-. Kopernikok, Keplerrek, Galileok, eta, pixka bat geroago, Newtonen bere tokian jarri zuten Lurra, eta haiekin batera sortu eta garatu zen zientzia modernoa esaten zaiona.

Astronomian eta fisikan eman zituen lehen pausoak behaketa, datu, egitate, neurketa eta matematika sendoetan oinarritutako zientzia berriak, baina sortzetik bertatik geratu zen agerian hori baino askoz ere gehiago zela. Munduaren misterioei aurre egiteko era berri eta berritzaile bat zen, bazterrean utziko zituena sineskeria eta dogmak, eta, halaberrez, horietaz elikatzen diren botere ereduak. Gogoratu besterik ez dago zer harrera beroa jaso zuen haien aldetik.

Baina aurkariak saiatuagatik, ez zegoen atzera bueltarik. Lurra bere tokian jarrita, medikuntzara, kimikara, biologiarara eta bazter guztietara zabaldu zen astronomian jaiotakoa, eta 1859an, gizakia bere tokian jarri duen lana argitaratu zuen Charles Darwinek. Hautespen naturala da biziaren eboluzioaren eragilea, eta ez du xederik; ingurumenak ondoen egokitutakoa faboratzen du, eta denbora eskala geologikoan, eboluzioa gertatzea da haren ondorioa. Ideia sinple eta ikaragarri boteretsua da, biziak sortze unetik hartu dituen forma guztiak esplikatzeko gai baita arrazoimen hutsaz baliatuta. Ez du beste deusen beharrik naturan ikusten ditugun guztiak azaltzeko, eta, jakina, pozez zoratu zituen Galileoren etsaien oinordekoak. Hura zuten kasik azken gotorleku, eta hautespen naturalak ezerez bilakatu zuen kreazioaren miraria.

Inork pentsa lezake aspaldiko kontuak direla horiek, eredu heliozentrikoa eta eboluzioaren teoria erabat barneratuak ditugula, eta gutxiengo arbuiagarri batek baino ez dituela jartzen zalantzan. Eta azalean egia da, baina sakonean ez hainbeste. Izan ere, ez da aski gehiengo zabal batek bi teoria horiek ontzat ematea. Teoria horien muinean dauden arrazoibideak eta balioak dira benetako gakoa; horiek dira era guztietako sineskerien eta dogmen aurkako benetako antidotoa, eta, zoritxarrez, hor, gehiengo zabala ez da oraindik hain zabala, eta gutxiengo arbuiagarria ez da oraindik hain arbuiagarria. Horregatik merezi du 2009an Galileoren eta Darwinen lanak gogora ekartzea, eta, haien argitara, sineskeriaren itzala desagertzearaino laburtzea.

Eider Carton, *Berría*, 2009/01/07

2. testua

4. Galileo Galilei eta Charles Darwin. Zer dute biek azpimarratzeko?

- a) Garai berekoak izanda ere, batak lortu zuen munduaren ikuspegia aldatzea eta besteak ez.
- b) Haien lanari esker, mendeen bueltan, jakintsuak zirenak askeago bilakatu ziren.
- c) Idazleak nabarmendu nahi duen ezaugarria da bien urteurrena batera ospatzen dela.
- d) Unibertsoaren eta lurreko bizidunen historia ulertzeko modua eraldatu zuten.

5. Zer egin zuten Galileok eta beste zientzialariek?

- a) Brahek eta Keplerrek ez bezala, Galileok ezinezkotzat ematen ziren fenomenoak argitu zituen.
- b) Kopernikok, Keplerrek, Galileok eta Newtonek urte berean egin zituzten euren aurkikuntza garrantzitsuenak.
- c) Galileo eta Newton izan ziren zientzia modernoaren sortzaileak.
- d) Galileok planetak teleskopioz behatu zituen eta Keplerrek horien mugimenduari buruzko legeak ezarri zituen.

6. Zer gertatu zen Astronomia zientzia moderno bilakatu zenean?

- a) Galileoren etsaien oinordekoek harrera beroa egin zioten.
- b) Ezkutuko galdera nagusiei aurre egiteko modu berri bat ekarri zuen.
- c) Boterea zutenek sineskeria eta dogmak hedatzea lortu zuten.
- d) Bazterrean utzi ziren planeten higidurari buruzko Keplerren legeak.

7. Zein da, idazlearen arabera, hautespen naturalaren teoriaren funtsa?

- a) Kreationismoaren beharra dagoela naturako zenbait gertaera azaltzeko.
- b) Matematiketan oinarritutako ideia sinple bezain boteretsua duela azpian.
- c) Naturaz kanpoko indar batek erabakitzen duela bizidun batek aurrera egingo duen.
- d) Biziak aurrera egiten duela aldeztu aurretik ezarritako helburu jakinik gabe.

8. Zer adierazi nahi digu idazleak bere artikuluan?

- a) Galileoren eta Darwinen ideiak onartuak ditugunez gero, haien urteurrena ospatu behar dela azpimarratu nahi du.
- b) Ez du uste urteurrena ospatzeko arrazoi berezirik dagoenik, eta lehengo eta oraingo etsaiei aurre egitea dela onena uste du.
- c) Galileoren eta Darwinen teoriak arrazoiak sakonago aztertu beharko lirakeela uste du, gaurko sineskeriei ere behar bezala aurre egiteko.
- d) Galileoren eta Darwinen teoriak pozik onartu zituztela dio, bai Galileoren etsaiek bere garaian eta baita Darwinen garaian haien oinordekoek ere.

4-	5-	6-	7-	8-
----	----	----	----	----

IRAKURMENA

3. testua

Euskaldunak Islandian XVII. mendean

XV-XVIII. mendeetan Ipar Atlantikoa izan zuten gure arbasoek, bereziki, beren azioen eta balentrien zelai zabal eta mugagabe. Spitzberg uharteetatik Ternua eta Labradorreraino, Islandiatik eta Kanarietaraino. Arrantza-leku guztietan eta portu ugaritan entzun izan dira mendeetan euskal azentu desberdinak eta horietan guztietan izan dira euskaldunak beste herrietako itsasgizonekin nahiz herritarrekin harremanetan.

Harremanok zein hizkuntzatan izango ziren ez dugu jakiterik gehienetan. Bada, baina, Islandiako lurretan XVII. mendean bertako elizgizon batek bildutako euskara-islandiera hiztegi bat (hiru, hobe esan) eta, hiztegi hondarrean, euskal esaldi omen diren batzuk. Horiexek adierazten digute ondoen zein hizkera erabiltzen zuten arrantzale haiek lehorreko bizilagunekiko harremanetan.

Hiztegiak, esan bezala, hiru dira, eskuz idatziak, eta DEEN irakasleak argitaratu zituen, Amnsterdam-en, 1937an, *Glossaria Duo Vasco-Islándica* izenburuarekin eta, guztira, 648 hitz eta esaldi biltzen dituzte. Hitzok, antza denez, ahoz, galdetuz eta erantzunak transkribatuz jaso zituen apaiz jakin-minak, eta inoiz gauzak keinu bidez seinalatuz.

Euskal hitzek, gehienetan, Lapurdiko euskarazkoak dirudite, baina badira gipuzkerazkoak eta goi-nafarrerazkoak ere. Bizkaierazkorik, berriz, apenas.

Bitxienak, esan bezala, esaldiak dira. Esaldietan aurki daiteke hizkera nahastu baten aztarna, ingelesezko, gaztelaniazko eta euskarazko elementuak dituena. Dena den, testigantza bakarra dugunez, gehiegi esatea litzateke Islandiako partean XVII. mendean *pidgin* modu bat erabiltzen zela.

Eneko Oregi
Administrazioan Euskaraz, 36. zk. (moldatua)

3. testua

9. Zer da *Glossaria Duo Vasco-Islándica*?

- XX. mendean plazaratutako bilduma, hiru euskara-islandiera hiztegitxo eta hainbat hizkuntzako hitzekin osatutako esaldi-sorta jasotzen dituena.
- XVII. mendeko elizgizon batek Islandiako arrantzaleengandik jasotako euskarazko eta islandierazko 648 hitz eta esaldien bilduma.
- XVII. mendean Islandiara joandako apaiz batek idatzitako hiru hiztegi txiki, euskarazko, islandierazko, gaztelaniazko eta ingelesezko hitzak dituena.

10. Testuan esaten dena kontuan hartuta, zer uzten du agerian lekukotza honek?

- XVII. mendean euskara eta islandiera nahasten zituen tarteko hizkuntza bat izan zela, ezbairik gabe.
- XVII. mendeko euskal arrantzaleek islandiarrekin izandako komunikazio-saioen erakusgarri da.
- XV-XVIII. mendeetan Ipar Atlantikora joan ziren euskaldunak Lapurdikoak izan zirela.

9-

10-

HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETA

ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

A zatia 50 (gutxienez 28)	Irakurmena	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	45 min
	Gramatika eta hiztegia	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	25 min
	Idazmena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	1h 15 min
B zatia 50 (gutxienez 27)	Entzumena	% 20	Gutxienez 10 puntu	20 puntu	25 min
	Mintzamena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	10 min
GUZTIRA		% 100	Gutxienez 55 puntu	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu denera eta 28 eta 27 proba bakoitzean. Era berean, ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izatea. Eraitza bakarra emango da: **GAIEZ GAI.**

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

EGITEKOA BETE. Komunikazio-egoera eta diskurtso-elementuak. Erregistroa. Edukia. Hitz kopurua.
KOHERENTZIA ETA KOHESIOA. Ideien eta egituren arteko lotura. Testuaren egituratzea. Paragrafoen antolamendua.
GRAMATIKA ETA HIZTEGIAREN ABERASTASUNA ETA ZUZENTASUNA. Gramatika-egiturak. Lexikoa. Joskera. Ortografia.